

ANTIO ETA IKASTOLA: LEGEALDI BERRIKO EGITASMO HANDIAK

·Zuek bai jakin!: Mariano Garcia ·Elkarrizketa: Marina Aparicio ·Izerdi patsetan: Mikel Balenziaga ·Boteprontoan: Anjeli Urtaran

Herri Aldizkaria Otamotz

2007ko

ekaina

128. alea



Argitaratzailea: Zintzo Mintzo. Labeaga 12, Urretxu. 943 03 64 74 **Koordinatzailea:** Asier Zaldia **Erredakzio kontseilua:** Alex Areizaga, Aintzane Arizmendiarieta, Jonmikel Intsausti, Sebas Iturriotz, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Igor Susaeta eta Asier Zaldia **Diseinua:** Ane Miren Ormazabal **Euskara zuzentzailea:** Marian Toledo **Azaleko argazkia:** Gotzon Aranburu **Banaketa:** Aintzane Arizmendiarieta **Publizitatea:** Iker Telletxea - 647 319 757 **Inprimategia:** GOI DESIGN **Lege Gordailua:** SS-742/96 **ISSN:** 1136-7318 **Tirada:** 1.500 ale **Otamotz** aldizkariak ez du bere gain hartzen adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik

aurkibidea

- 04 Hilabete honetako gaia**
Antio eta ikastola: legealdi berriko egitasmo handiak
- 10 Komikia / Egurra partitzen**
- 11 Zenbat buru, hainbat aburu**
Nola bizi izan duzu Realaren jaitsiera? Zer aldatu behar da?
- 12 Bota bertsoa! / Iritziz iritzi**
- 13 Argazki zaharra**
- 16 Klik eta klik**
Javi Alonso
- 19 Gure gomendioa**
- 20 Zuek bai jakin!**
Mariano Garcia
- 24 Elkarrizketa**
Marina Aparicio
- 26 Izerdi patsetan**
Mikel Balenziaga
- 28 Gure aholkuak**
- 29 Literatura**
- 30 Boteprontoan**
Anjeli Urtaran



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko Udalak eta Zumarragako Udalak emandako diru laguntza jaso du.

Antio eta Ikastola: Legealdi berriko egitasmo handiak

Urretxun eta Zumarragan aurrera atera nahi diren bi egitasmo nagusienetakoak Antioko interpretazio zentroa eta Ikastola berria dira. Azken hilabeteotan zalaparta handia sortu da bien inguruan eta, hauteskondeak pasatu ondoren, proiektuak zertan diren ikusteko garai aproposa da.



Anton Arbulu: “Egungo eztei-ospakizunak oso jendetsuak dira eta Antioko jatetxean ez dira 100 lagun baino gehiago kabituko”

Ereduaren inguruko eztabaida luzeen ondoren, datorren legealdian Antion taberna izango duen eraikina egingo dela dirudi. Interpretazio zentro izena eman zaio.

Anton Arbulu alkateak aurkeztutako aurreproiektuaren arabera, erakusketa eta proiektio gelak eta jendeak horrenbestetan eskatu duen ostalaritza zerbitzua izango ditu. Obra aurtengo urte amaieran hasia eta 2009. urte hasieran bukatzea espero da.

Helburua Antio are eta erakargarriagoa egitea eta bisitariei zerbitzu gehiago eskaintzea da. Horretarako, bi eraikin egingo dira, Goiburu baserrira eta Belokira doazen bideen artean dagoen lursailean. Eraikinetako batean Antioko eta inguruotako ondarea erakutsiko da eta bestean ostalaritza zerbitzua eskainiko da. Batak arkupea, harrera zerbitzua, bi erakusketa gela, 40 lagunentzako hitzaldi eta proiektio gela eta oroigarri denda izango ditu. Aretotako batean inguruko egurrezko elizei buruzko erakusketa izango da.

Ostalaritzari dagokion eraikinean, kafe-tegia, jatetxea, komunak eta terraza izango dira. Jatetxea bigarren solairuan izango da eta ikuspegi zoragarria izango du. Sarrera goiko bidetik izango du, baina behekotik ere joan ahal izango da igogailua hartuta.

Behin-behineko proiektuaren arabera, 4 milioi euro inguru kostako da. Kopuru horri altzarien kostua gehitu behar zaio. Zumarragako Udalak Foru



Anton Arbulu, Zumarragako udaletxeko bakoian.

Aldundiaren dirulaguntza jasotzea espero du.

Aipatu bezala, interpretazio zentroa 2009an irekitzea espero da. Baina Antiok taberna behar du lehenbailehen. Bisitariak eta herritarrek taberna eske dira Elizalde izenekoa itxi zenetik. Hori dela eta, 1999-2003 legealdian, EA-EAJ koalizioa agintean zela, Udalak egurrezko txabola bat eraikitzeke lanak hasi zituen. Bertan taberna ireki behar zen, baina eraikinak su hartu zuen ia bukatuta zegoela.

Bukatu berri den legealdi honetan bertan, EAJk antzerako txabola bat erostea eta bertan taberna jartzea proposatu du, interpretazio zentroa ireki bitartean behintzat. Anton Arbulu alkatea,

ordea, Arkaitzeta elkarteko ateak bizi-lagunei eta bisitariei irekitzearen alde azaldu zen. Bazkideek ez zuten begi onez ikusi aukera hau.

Aurtengo udan ere, Antiora inguratzen direnek beroari aurre egiteko arma bakarra izango dute: zuhaitzen itzala. Bestalde, EAJk interpretazio zentroa hasiera batean aipatu baino askoz ere handiagoa izango dela salatu du hauteskunde kanpainan. Jeltzaleen esanetan, helburuetako bat Antion ezkontzen direnei ondorengo bazkaria edo afaria bertan egiteko aukera eskaintzea da. Hala ote? Noiz izango dute zumarragarrak Antion freskagarri bat hartzeko aukera? Galdera hauei erantzuna emateko pertsona aipatzen Anton

Arbulu alkatea da. Izan ere, hauteskundeetan 11 zinegotzi lortu ondoren, nahi duen egitasmoa aurrera ateratzeko moduan da.

Alkateak zumarragarrak lasai egotea nahi du. Berak dioenez, jantokian autobus batean kabitzen den jende kopurua kabituko da, gutxi gorabehera. Hala, gonbidatu gutxi dituzten ezkongaiak bakarrik ospatu ahal izango dute

“Goiburu baserriarekin zer egin pentsatu behar dugu. Landa-turismo ostatua irekitzea oso ondo egongo litzateke”

bertan euren egun handia. Aparkaleku gehiago egiteko asmoa ere badago, baina "35 bat autorentzat bakarrik", dio Anton Arbuluk.

Zumarragako alkatearen esanetan, "Antio inguruak balio handia du paisaia, monumentu eta gizarte aldetik. Kalitateko zerbitzua eskaini behar da, baina inguruan ondo egokituko dena". Jatetxearen helburuetako bat autobusean etortzen diren bisitariei bertan eguna pasatzeko aukera ematea da. "Bestela, ez litzateke errentagarria izango. Baina argi utzi nahi dut Antion ezingo dela ezkontza-bazkaririk eman, oso txikiak ez badira behintzat. Egungo eztei-ospakizunak oso jendetsuak dira eta Antioko jatetxean ez dira 100 lagun baino gehiago kabituko", azaldu du.

Errentagarria izan dadin, jatetxea familia batek hartzea ere lortu behar dela uste du: "Bere garaian serora bezala, familia bat han bizi beharko litzateke eta jatetxeaz arduratu. Hala, etengabe ko maizter aldaketa ekidingo dugu", aipatu du.

Ramon Aiertza arkitektoa behin-betiko proiektua lantzen ari da dagoeneko. Udalak maketa uda ostean aurkeztea espero du. "Ikusgai jarriko da eta bizilagunek euren iritzia azaltzeko aukera izango dute". Ondoren, Udalak inguru osorako plangintza diseinatuko du. "Goiburu baserriarekin zer egin pentsatu behar dugu. Bertan landa-turismo ostatua irekitzea oso ondo egongo litzateke. Beloki mendiaren inguruan ibilbidea prestatu nahi dugu. Aparkaleku gehiago ere beharrezkoak izango dira. Aurreko batean 6 autobus eta 150 auto bildu ziren, baina aparkaleku gehiago

behar direla uste dut: 35-40 inguru. Tokia badago. Ez da interpretazio zentroa bakarrik izango, beraz", esan du Zumarragako alkateak.

Udalak aurtengo aurrekontuko 1,6 milioi bideratu ditu interpretazio zentrorako eta lanak urtea amaitu aurretik hastea nahi du. "Arantzazun eta Loiolan egin beharrekoak egin dira eta Antio bakarrik falta da. Hemengoa ere beharrezkoa da, Antio Euskal Herriko toki erakargarrienetako bat baita. Hori dela eta, Aldundiak guri ere dirulaguntza ematea espero dut. Egitasmoa denon oniritziarekin onartzea nahi dut, Zumarragarentzat oso garrantzitsua baita", dio.

Arbuluk ez du beharrezko ikusten interpretazio zentroa egin bitartean taberna txiki bat irekitzea. "Ez zait garrantzitsua iruditzen. Nire nahia egingo dena ondo egitea da", amaitu du.

Interpretazio zentroa Goiburu baserrira eta Belokira doazen bideen artean dagoen lursailean egingo da.



Iñaki Zabala: "Ikastolarentzat proiektu berri bat egiteko nahia dut, baina egungoa ezin dugu defendatu herriaren aurrean"

Azken legealdian garrantzia handiko egitasmoak atera dira aurrera Urretxun, baina Arau Ordezkatzaileen berritze prozesua izan da protagonista nagusia. Eztabaida puntuetako bat ikastola berriaren ingurukoa izan da. Udalak eta Ikastolak hitzarmen bat sinatu dute eta horren arabera promozio libreko etxebizitzak egin ahal izango dira Ikastolaren egungo lursailean. Hortik ateratako diruarekin, ikastetxe berria egingo da Azkoitira bidean, Elizalde eta hilerriaren artean dagoen orubean.

Ikastolak aurkeztutako egitasmoaren arabera, eraikin berriak 0 eta 14 urte bitarteko haurrak hartuko ditu. Ikasgelez gain, liburutegia, informatika gelak eta egungo beharretara egokitutako jangela izango ditu. 110 autoentzako aparkalekua, kirol gunea, pilotalekua eta aretoa ere egingo dira. Azken hauek, herritar guztiek erabili ahal izango dituzte Ikastola itxita dagoen egunetan.

Aurreko legealdiko gobernu taldeak begi onez ikusi du Ikastolak bere hezkuntza eskaintza hobetzea eta egitasmo berriari esker ikastetxearen egungo kokapenak sortzen dituen trafiko arazoak konponduko liratekeela adierazi du. Hitzarmenaren arabera, lehenengo eskola berria eraikiko da eta gero etxebizitzak egingo dira egun ikastola dagoen tokian. Gipuzkoako Foru Aldundiak Urretxuko Arau berriak onartu bezain pronto hasi beharko lirateke

Iñaki Zabala, Urretxuko udaletxe aurrean.



lanak eta, kalkulu baikorrenen arabera, ikastetxe berria 2008-2009 ikasturtean irekiko litzateke.

Dena den, egitasmoaren kontrako iritzia ere azaldu dira. Hitzarmena otsailan sinatu zuten Udalak eta Ikastolak eta martxoan Herribide plataformak Ikastolari "eraikitzaileen interesekin bat" egitea leporatu zion. Euren esanetan, hitzarmen hori ez da herriarentzat mesedegarria eta gazteek etxebizitza lortzeko duten arazoa areagotzen du. Udalak zerbitzuetarako den lursail bati uko egiten diola ere esan zuten.

Ikastolako arduradunek eskola ordue-tatik kanpo instalazioak edonork erabili ahal izango dituela gogorazi zuten. Baita Ikastola gizarte intereseko koo-

peratiba dela eta egunen batean porrot egingo balu, bere instalazioak herriaren esku geldituko liratekeela.

Hauteskunde kanpainan, Ezker Batua-Aralar taldeak Ikastolak bere ikasle guztiak eraikin berrira eramatea eta haurtzaindegia eta lizeoa erabilpen publikorako uztea proposatu zuen. Ikastetxeak aurkeztutako proiektuaren arabera, ordea, 14 urtetik gorako ikasleek lizeoan jarraituko dute.

Zer gertatuko da azkenean? Hauteskuendek aldaketa nabarmena ekarri dute Udalean, egitasmoak ere aldaketarik izango ote du? Iñaki Zabala alkate berriak eta bere alderdiak duela hilabete batzuk esandakoari eusten diote. "Gaia berraztertu nahi genuke.

hilabete honetako gaia

Zergatik? Arau Subsidiarioak liskarre-rako gehiago izan dira adostasunerako baino. Gure nahia plangintza berri bat egitea da, gehiengo baten adostasunarekin. Herritarren ahalik eta partaidetza handiena nahi dugu. Nolako Urretxu nahi dugun zehazten dugunean, oso erraza izango zaigu eman beharreko pausoak zehaztea. Ezin gara lau urtean behin norabidea aldatzen ibili", azaldu du alkateak.

Bere ustez, egungo Arauak ez dira bideragarriak. "440 etxebizitza egin behar direla eta horietatik erdia sozialak izango direla esaten da. 440ri ikastolan egin beharreko prezio libreko 150 kentzen bazaizkie, aukerak agortu egiten dira. 290etik 220 babesekoak egin nahi izatea, Arauak dinamitatzea da. Zein promotore etorriko da etxeak egitera? Gauzak horren gaizki egin direnez, prozesua berriro hasi nahi dugu". Dena den, Ikastolako arduradunei lasaitasun mezua helarazi nahi die. "Besterik ezin dudala egin jakinarazi diet. Hori bai, alkatetza hau prest dago euren beharrak ere hasieratik aztertze-ko. Ikastola oso garrantzitsua da Urretxun eta gabezia handiak ditu. Hortik abiatuta, gauza guztietara irekia nago. Proiektu berri bat egiteko nahia eta gogoia dut, baina egungoa ezin dugu defendatu herriaren aurrean".

ANVk gehiengoa beharko du Arauak berritzeko prozesua hasteko, beste alderdi batzuen babesa behar du alegia. "Guztiok herri honen etorkizunerako arrazoizkoak diren gauzak planteatuko ditugula uste dut. Jendea elkartuko zaigula uste dut. Lehen onartu dena txarra dela erakustea oso erraza egiten

Ikastolaren egungo eraikina Pasiotarrek egin zuten eta obra 50eko hamarkadan bukatu zen.



zait. Hori dela eta, ez dut beldurrik. PSE-EE ez zegoen Arauen alde, baina EA eta EAJ ere elkartuko zaizkigula uste dut. Aurrekoak onartu izanak harritzen nau. Ez zen partaidetza bultzatu eta zenbait gauza ezkutuan egin ziren", azaldu du Zabalak.

Gai garrantzitsua izanik, lehentasuna du alkate berriarentzat. "Presa handia du, baina bi edo hiru urtetan ez da ikastola berririk izango. Plangintza aurtent egin nahiko nuke, baina Sanjoanetatik Santa Anastasietara oso zaila da herri honetan lan egitea. Orain sei hilabete edo urtebete galduko dugu, baina gero asko irabaziko dugu", aipatu du.

Aipatu bezala, alkateak eta bere alderdiak beste batzuen babesa behar dute euren asmoa aurrera ateratzeko. PSE-EE eta EB-Aralar ez dira Ikastolarekin sinatutako hitzarmena eta Arauak berraztertzearen aurka ageri. EAJ Arauetan aldaketak egitearen alde dago eta EAK, berriz, gauzak bere horretan utzi nahi ditu.

Joxe Mari Lete EAKo zinegotziak Ikastolaren egitasmoa eurentzat "oso garrantzitsua" dela adierazi du. "Behar den kontrolarekin eta adostasunarekin, baina aurrera atera behar da. Ikastola ondare publikoa da, gure seme-alabak bertara joaten dira eta, zorionez edo zoritxarrez, Urretxuko enpresa handiena da. Gainera, aparkalekua, kirol instalazioak eta aretoa herriaren probetxurako izango dira", azaldu du.

Proiektua hitzarmenean jasotako moduan bakarrik atera daiteke aurrera, EAKoen ustez. "Ikastola egokia egiteko, nahitaezkoa da egungoa dagoen tokian etxeak egitea", aipatu du. Arauak euren oniritziarekin onartu ziren eta horiek ere bere horretan mantentzearen alde daude, noski. "Kontu hori ez zela ondo itxi diote batzuek eta besteek. Bakoitzak bere proposamenak aurkeztu behar ditu eta zer aldatu begiratzeko aukera dago. Dena den, Urretxu ezin da gelditu eta gure hautua zein den argi dago. Herriko enpresek 17.000 metro koadro behar dituzte

Joxe Mari Lete (EA):

*"Ikastola on bat egiteko,
nahitaezkoa da egungoa
dagoen tokian etxeak
egitea"*

Gema Zabaleta (PSE-EE):

*"Aldaketak egin behar
direla ikusten bada,*

adostasuna bilatu

beharko da"

Itziar Agirre (EAJ):

*"Ikastolaren proiektuaren
alde egon gara beti eta
hitzarmenaren*

edukiarekin bat gatoz"

J.A. Martin (EB-Aralar):

*"Sustapen libreko etxeen
kontra gaude eta Ikastola
dagoen tokian babestuak
egitea nahi dugu"*

Hitzarmenaren arabera, Ikastola berria hilerriaren ezkerrean dagoen lursailean egingo da.



pabilioietarako. Hori lortu ezean, joan beharra dutela esan digute zenbait enpresarik. Herriko beharrei irtenbidea eman beharra dago", amaitu du.

PSE-EEko Gema Zabaleta, berriz, adostasuna lortzeaz mintzatu da. "Arauk ez ziren modu egokian onartu. Aldundiak eurei buruz zer dioen jakin eta gero, bat-etortze zabalagoa bilatu nahi dugu". Ikastola eta Udalaren arteko hitzarmena ere, beharbada, aldatu egin beharko litzatekeela uste du. "Ikastolakoekin elkartu beharra dut, Udalak herritar guztien mesedetan lan egin beharra baitu. Aldaketak egin behar direla ikusten bada, adostasuna bilatu beharko da", dio.

Aipatu bezala, EAJk begi onez ikusten du Ikastolarekin sinatutako hitzarmena. "Bere proiektuaren alde egon gara beti eta hitzarmenaren edukiarekin bat gatoz", dio Itziar Agirre zinegotziak. Prozesua gardena izatea nahi dute. "Zerbakiak argi eta garbi azaldu behar zaizkio Udalari eta parkinaren, aretoa-

ren eta kirol instalazioen erabilera oso ondo definitu behar dira", aipatu du.

Arauei dagokienez, aldaketak egitearen aldekoak dira. "Azaroan helduko da Aldundiaren erantzuna eta orduan beharrezko aldaketak egin beharko dira. Dena den, prozesua berriro hastearen aurka gaude, atzerapen handia ekarriko bailuke", dio Agirrek.

EB-Aralar, berriz, ANV bezala, Udalaren eta Ikastolaren arteko hitzarmena eta Arauk berritzaren alde dago. "Promozio libreko etxebizitzaren kontra gaude eta, beraz, Ikastola dagoen tokian ere babes ofizialekoak egitea nahi dugu. Era horretan ere, Ikastolak eraikin berria egiteko nahiko diru aterako lukeela uste dugu", aipatu du Jose Andres Martin zinegotziak.


Abendu amaieran onartutako Arauekin ere ez dago ados. "Berriak egitearen alde gaude. Izan ere, ez zaigu Arauen edukia gustatzen eta ezta nola onartu ziren ere. Legealdi honetan hori guztia eztabaidatu beharko da", azaldu du.



egurra partitzen

Jon Torner
Jon Ormazabal

KUtxiguzu bidea Atxun



Edo gutxienez Gaztelekuko atea ez itxi gu bezalako hirugarren belaunaldiko gazteoi, horixe baikara Kutxako gestoreentzat. Misha artzaren, mila-kromotako kolekzioen eta plastikozko raketen Club Juvenil hartatik bezala, gazteen artetik ere bota gaitu gipuzkoar askoren aurrezkiak kudeatzen dituen erakundeak. Hirugarren hamarkada hastera goazen honetan, Gazte Txartela albo batera utzi –non demontre erabili sekula jakin ez dugun txartel horren abantailez gozatzeko aukerarik ez dugu izango aurrerantzean– eta hipoteketan pentsatzen hasteko garaia dela esan ez digute ba, gure fideltasuna eskertzeko opariren bat emateko zela uste genuen eskutitz hotzean. Baina karnetak eta gorputzak bestelakorik gomendatzen duten arren, noizean behin utopiarako trena hartzen jarraitu nahi dugu *gure trena* zenaren geltoki izandako honetan. Maizegi egin dugu herriko beste edozein taberna bezala era-

biltzearen akatsa. Eta are sarriago sartu zaigu bertan gaudenean Espinete eta Don Pinponen konplexua. Ez Sesamo Auzoko okinaren tokaioarekin topo egiten dugulako, inguruko adina biderkatzen dugulako baizik. Baina eroso sentitzen gara zuritoak oraindik peseten prezioetan kobratzen dituzten barraren alboan.

Edozein ekintza antolatzeko orduan subentzioen morroi den gizarte gero eta individualistago honetan, autogestioa posible eta beharrezkoa dela erakutsi du Urretxu-Zumarragako gazte asanbladak azken bost urte hauetan –irriti propioa ere sortu da makrokonzerturen beharrik gabe– Ku zaharrea urtetan ereindako bidetik.

Kontuak egiten hasita, Gazte Txartelaren mugak gaintuta behar luke Gaztelekuarentzat ere, baina zorionez ez du halakoren beharrik espirituz sekula baino gazteago baitago. Segi urteak betetzen eta bitartean, tori gure bostekoa!!!

Nola hartu duzu Realaren jaitsiera? Zer egin da gaizki? Zer aldatu behar da?



Iñaki Gereñu



Dena aldatu behar da. Daudenek ez dute erakutsi Lehen Mailan jarraitzeko gai direnik. Gutxik merezi dute taldean jarraitzea. Bigarren Mailarako egokiak diren jokalaria fitxatu behar dira. Egia esan, jaitsierak ez gaitu ezustean harrapatu, onartuta genuen.

Juan Luis Ortega



Putakeria handi samarra izan da, baina merezi zuten. Hori bai, dena errotik aldatzen ez baldin bada, 20 denboraldi emango ditugu Bigarren Mailan. Ikuskatzaileek egiten duten lana... Igotzea? Borroka egingo duen jendea behar da.

Joseba Etxeberria



Txaketeroa naiz eta gainera jarrera hori bultzatzen dut. Futbola kirola da eta igande arratsaldea lasai pasatu nuen horregatik: futbola kirola besterik ez delako. Onak gorengo mailan jokatzeko dute eta txarrek beheko mailetan. Sekula ez naiz Anoetara joan, baina San Mameseko giroari esker Athletic-ek sei puntu lortzen ditu denboraldi bakoitzean.

Joaquin Maillo




Onartuta genuen. Zergatik jaitsi den? Gaizki jokatu duelako eta fitxaketak ez direlako egokiak izan. Jokalari asko aldatu behar dira eta Bigarren Mailan jokatzeko talde aproposa egin. Hemengo jendearekin baldin bada, askoz hobeto. Bigarren Mailan igoera lortzeko lehiatuko gara!!!

Gaia: Bertso berriak, dantzariok Santa Isabel egunari jarriak

Doinua: Albiste zirinolak (Joseba Tapiarena)

Gorka Azkarate




Soineko luzez jantzi
zaigu Zumarraga,
agintari, herritar,
denok plazara.
Uztaileko bigarren
eguna da jada,
goizean elkartu ta
goazen ermitara.
Txorien gisara
txistu hotsa, hara,
atzetik ilada,
azaltzen zaila da
barrean sentitzen
dugun zirrara.

Ermitaratu gara
kanpai hotsarekin,
dantzarako ordua
heldu da, ekin!
Sartu eta elkartu
gara Amarekin.
Sentiaraziz bere
babesa gurekin,
mugi hankak arin
ta besoak berdin,
saia gaitezen fin,
ezin da hutsegin,
mendetako katea
eten ez dadin.

Ermita inguruko
mahai eta karpa,
bazkaltiarrez lepo,
zelai, aldapa.
Erromerian dantzan,
taldean koplaka...
Jaitsiera da egun
haundiko posdata,
jauzi, oihu, kanta,
zenbait arrastaka,
tirriki-tarraka,
ze giro aparta!
Jai egun hau urtean
bakarra da ta.

iritziz iritzi

Ibon Garmendia



Agur, adios, au revoir

Artikulu honetarako gairik ezin aurkituta nabilen eta kalera irten naiz, pentsatuz on egingo zidala. Ezin asmatuta nabil on egin ote didan edo kalte. Etxetik irten eta kalean behera egin dut. Han ikusi dut ezagun bat eta agur egin diot eta ondoren ikusi dut beste halako hura, ez dut behin ere berarekin hitz egin baina beti egiten diogu agur elkarri. Beste hura ere ikusi dut eta betidanik ezagutzen dudan arren ez dit begiratu ere egin. Gauza berezia da agur egitearen kontu hau, ezta?

Herri batean (edo bitan) bizi gara eta gustatu edo ez elkarren ezagutza handia dugu. Aurretik esan ditudan egoera guztien aurrean espantoneki edo aurre-erabakita era batean edo bestean jokutzen dugu. Urtezahar gauean aurreko urtean aurpegira

begiratu ez dizun horrek irribarre egin eta urte berri ona opatuko dizu. Mendian, kalean agurtzen ez dugun pertsona horri ere agur esaten diogu. Oporretan herritik urrunduz gero eta herrikoren bat ikusten badugu, agur egingo diogu elkarri eta deskuidatuz gero hitz egiten geratuko gara. Batzuetan denok herritik urruti egon beharko genukeelakoan nago. Hau da, keinu batek balio handia duela iruditzen zait eta honetan herri izaera mantendu beharko genukeelakoan nago. Sarritan gero eta hiritarragoak garela sentitzen dut eta horrek ondokoarenganako solidaritate txikiagoa dakarrela pentsatzen dut. Seinale baten aurrean ote gaude? Zer iruditzen zaizu zuri? Nireak bota ondoren, agur t'ardi guztioi.


1992**Gazteleku zaharra**

Argazki honetan Ramiro, Eduardo, Otano, Kontxi, Sastre, Muga, Kaspe, Rafa, Ruben, Josi, Juanlu, Mari C., Txus, Eugenio, Eider, Iñigo, Ion, Aitor, Leon, Peio, Patricia, Bolin, Igor, Dorleta, David, Asier, Alaitz, Itsaso, Josemi, Guridi, Gontxa, Iker, Uli, Ane, Idoia, Oier, Ainhoa, Gorka, Diego, Edu, Ramon, Pedro, Oihane, Xabi, Antziñe, Iñaki, Alon, Oskar, Miguel, Koldo, Isma, Mirian, Jose Antonio... ageri dira. Agur bat Gaztelekun parte hartu zuen jende guztiari eta eskerrak Gaztetxe berriari egiten duen lanagatik.

Argazkilaria: Iñaki Lizarralde.



QUEVATZAREN



Herri Aldizkaria

Otamotz

Orain duzu aukera, bat egin gurekin!

ZINTZO-MINTZO ELKARTEKO BAZKIDETZA:

- Hilero Otamotz aldizkaria jasoko duzu zure etxean.
- Zure ekarpenarekin proiektu hauek bultzatuko dituzu: Otamotz, Otamotz.com, Goierriko Hitza, eskualdeko telebista, Kafe Antzokia, Mintzalaguna, Bertso Eskola, Kantu Afaria, Liburu-lanketa, Gazte Lokala, Aisialdia Euskaraz, Normalizazio Plana, hizkuntza eskubideak, sentsibilizazioa...
- Urtean 25 euro.

OTAMOTZ ALDIZKARIKO HARPIDETZA:

- Hilero Otamotz aldizkaria jasoko duzu zure etxean.
 - Urtean 12 euro.
- Ekarri edo bidali postaz zure datuak honako helbidera:
Zintzo-Mintzo elkarte
Labeaga 12, behea (Goierri elkartearen ondoan)
20700 Urretxu
- Posta elektronikoa erabiltzea nahiago baduzu:
zm@euskalnet.net

<input type="checkbox"/>	ZINTZO-MINTZOKO BAZKIDE EGIN NAHI DUT
<input type="checkbox"/>	OTAMOTZ HARPIDETZA ORDAINDU NAHI DUT
IZEN-DEITURAK	
JAIOTZE DATA	
HELBIDEA	
TELEFONO ZENBAKIA ETA E-MAILA	
EHNA EDO NA	
KONTU KORRONTE ZENBAKIA	

UROLA

ELEKTRATRESNAK

☎ 943 72 02 15 - Faxe 943 72 52 91
Secundino Esnaola 2, ZUMARRAGA



HARATEGIA URDATEGIA

☎ 943 72 00 61
Leturiatarren enparantza, 2
ZUMARRAGA

MURUA

Oinetako konponketa

Larruzko erropen konponketa.
Guraiza, labana... zorrozketak

Labeaga, 37 URRETXU
Golden plazoletan

centro óptico
JAVIER ARRATIBEL
óptica

Ikusmenaren neurketa - Begietako
tentsioaren neurketa - Graduaturako
eta eguzkitarako betaurrekoak -
Lentilak - Termometroak eta
barometroak

Soraluze, 10 ZUMARRAGA
☎ 943 72 54 84


Egumendi, S. L.

Manganeso altzairuaren
aplikazio teknikoak

Ipeñarrieta, 48
☎ 943 72 33 01 - Fax: 943 72 43 41
Urretxu-Zumarraga
www.egumendi.com
egumendi@egumendi.com



Labeaga, 35 Urretxu ☎ 943 72 41 60




Secundino Esnaola, 16 B
Tel: 943 72 16 63
ZUMARRAGA



SUTAN

Tximiniak, berogailuak, sukaldeak eta estaldurak
☎ 943 72 06 38 - 665 73 73 02 Fax: 943 72 06 38
Mugitegi poligonoa, B bidea, 6 bidea - URRETXU
www.sutan.biz - sutan@sutan.biz



Lorea

Pinturak - Etxeko apainketak
Lurrindenda - Jostailuak

☎ 943 72 41 90
☎ 615 75 33 28
Fax: 943 03 79 88

Legazpi, 5 - Zumarraga

PLAZAOLA ITURGINTZA

Bide-Zar 5 ZUMARRAGA
943 72 13 70



- Dietetika
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 943 72 36 52



Muntaia eta instalakuntza elektrikoak
Enpresa mantenua
Argiteria publikoa

Denda: Ipeñarrieta 4, ☎ 943 72 09 50
Tailerra: Mugitegi, ☎ 943 72 42 66
Mugikorra: 656 703 392

20700 URRETXU



natural optics URRETXU

Lurdes Rodríguez Iparragirre, 1-Urretxu
Optiko-optometrista ☎ 943 72 59 68
urretxu@naturaloptics.com
www.naturaloptics.com



arropa informala

Barrenkale
Urretxu
943 72 40 57



ALTZARIAK

MERKA-UROLA

Mugitegi, 17 Tel. eta faxe 943 72 58 28
URRETXU



JATETXEA

Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19
ZUMARRAGA



Legazpi, 5
☎ 943 72 62 74
ZUMARRAGA



BAPRI ANIMALIADENDA

Txoriak, arrainak,
katuak, dordokak...

Urdaneta, 3 ☎ 943 72 61 13
ZUMARRAGA



Edergintza

Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium

Labeaga, 2 - URRETXU
☎ 943 72 25 13



Belardenda, dieta eta errejimen elikadura
Mediku-homeopata kontsulta
Labeaga, 30 - Urretxu - ☎ 943 72 27 80

BIONA

AROSZTEGIA

Altzariak neurrira

☎ 943 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU



alejandro albisua

☎ 943 72 52 22
Soraluze, 6 - Zumarraga

AUZO LAGUN KOOP.

Zumarragako ospitalerako ondorengo pertsonala behar da:

SUKALDARI NAGUSI 1, Ref: SN1
SUKALDARI 1, Ref: S1
3 KAMARERA, Ref: KAM1

Kurrikulumak: rrhh.urb@auzolagun.com

klik eta klik



Betartzekeko progresibok

▼
Ale honetan Samiño inguruan ateratako argazkiak ikus ditzakezue.

Javi Alonso



MULTIOPTICAS

Betaurreko progresiboak
isla-kontrako lenteekin **149 €**



Diseinuko betaurreko progresiboak

COOL bilduma, MultiOpticas-en eskusiban

Eskaintza hau 07/05/07tik 07/06/30era arte izango da. Cool, Cool + eta Fashion Pro markako armazoi selekzio bat eta 2 lente progresibo Multifoko E 1.5 AR Basic, zil: +2 esfera +4 -6ra; add: +3 hartzen ditu barne.

J. Carlos Guerra, 1 Tel.: 943 79 29 95 ARRASATE	Ibargarai, 16 Tel.: 943 76 15 75 BERGARA	C/ Nueva, 15 - GROS Tel.: 943 32 66 49 DONOSTIA	Bidebarrieta, 2 Tel.: 943 20 05 22 EIBAR	Koldo Mitxelena, 7 Tel.: 943 51 78 11 ERRETERIA	Mendibil M.G. Tel.: 943 63 99 01 IRUN	J.M. Barandiaran Enp. Tel.: 943 88 99 88 ORDIZIA	San Frantzisko, 23 Tel.: 943 69 84 70 TOLOSA
--	---	--	---	--	--	---	---

IKER

SUKALDE ERAKUSKETA

FAGOR



Ipeñarrieta, 5
☎ 943 72 50 75
URRETXU

San Lorenzo, 1
☎ 943 53 35 48
OÑATI

Udala enparantza
☎ 943 79 00 43
ARRASATE



Winsor MacCay

Little Nemo in Slumberland. ¡Aquellos espléndidos domingos!

Liburuak, objektu diren heinean, ez dira irakurtzeko bakarrik, begiratu, ukitu eta usaindu ere egiten dira. Badira usain ederra duten liburu irakurtezinak eta baita eskuak hozkitzen dituzten maisulanak ere. Gutxitan ikusten dira, aldiz, goi mailako edukia zein edizioa dituzten liburuak. Norma argitaletxeak gazteleraz argitaratu duen *Little Nemo in Slumberland* zaku horretan sartuko nuke. Little Nemo mutiko ameslariaren komiki

famatuak Winsor MacCay-k idatzi eta marraztu zituen XX. mendearen hasieran, New York Herald-en enkarguz. Edizio honetan, MacCay-k aurreikusi zituen kolore eta tamainak mantendu dira. Horregatik, berehala atentzioa ematen du liburuaren tamainak (hemengo egunkarien bikoitza). Nemo txikiaren ametsen mundu majikoak, askatasun osoa ematen dio artistari.

Dabid Bilbao



Joseba Irazoki

On Benito

Hala dio Dut taldearen kantu gogoangarriak: *Sortu eta hazi*. Ezinbestekoa sorkuntza, hazi nahi badugu. Gizakiak berak jaio egin behar, gero haziko bada. Beran sortu zen Joseba Irazoki (zer ote du herri horrek hainbeste musikari eta proiektu interesgarriren habi izateko?). Musikari profesional gisara aritu zen eta Onddo pop taldeko kide ere izan zen. Hura desagitean, bakarka hegan egiteari ekin zion. Ez dio sortzeari utzi, ez

dio hazteari utzi. Hiru egitasmo ondo desberdin ditu esku artean. Bere izenez sinatu ditu folkari loturiko *Irri eta solas* (2004), *Gizona zakur egin zen* (2005) eta *Folk me, laztana* (2006). Musika instrumental esperimentalari bide eman dio Do izeneko proiektuaren bidez -*Tokian tokiko* (2005) eta *Pertsona* (2007)-, eta On Benito rock&roll zikineko taldea sortu berri du. Sortzailea.

Gorka Erostarbe



Michael Glawogger

Workingman's death

Eskuz egindako lan astuna desagertzen ari da XXI. mendean ala ikustezin bihurtzen ari da soilik... Non aurkitu ditzakegu gaur egun halako lanen adibideak? Michael Glawogger austriarrak hainbat lanbide latzen aztarna jarraitzen du mundu osoan zehar eta bertan lanean ari diren langileen iritzia eta eguneroko gogorra aurkezten du *Workingman's death* dokumentalean. Hainbat eta hain-


bat zerrendatan 2006ko film onena izendatu dute film hau. Meatzari klandestino, siderurgiako langile, hiltegi langile eta abarren lanaren ñabardurak kamera aurrean izango dira ikusgai. Ona bezain ikusgarria da bi ordu pasatxoko iraupena duen eta sei ataletan banatua dagoen dokumental hau. Ikusteko aukera baduzue ez ezazue aukera galdu.

ButaK 21 zineklub taldea

Mariano Garcia: Areizaga plazako zelataria

Mariano Garcia Altsasun jaio zen, baina gerra garaian bere familia bertatik bota eta Urretxun bukatu zuten. Lantegietan eta merkataritzan jardun zen, baina zinea zen bere pasioa. Bera da kamera erosi eta herriko irudiak hartu zituen lehenengotakoa. Areizaga plazako bere talaiatik, bi urte eman zituen errekaen estaldura lanak grabatzen. Bere artxiboa Urretxuko Udalari eman dio.

Mariano Garcia, garai bateko argazki eta zine kamerekin.



Urretxun bizi zara, baina Altsasun jaio zinen.

Hala da. 1927an jaio nintzen, 80 urte ditut beraz. Nire haurtzaroa zorionsua izan zen. Aitak Olaztiko porlan fabrika lan egiten zuen eta soldata txukuna irabazten zuen. Ondo bizi ginen eta gerra hasi zen arte, eskolan eta jolasean ematen nuen eguna. Bederatzi urte nituenean guda hasi zen eta tragedia ezagutu genuen. Ez dakit nire lagunekin zer gertatuko zen, ordutik apenas itzuli bainaiz Altsasura. Bi aldiz bakarrik joan naiz, azkenekoan nire biloba eraman nuen non jaio nintzen ikus zezan. Hura ere asko aldatu da.

Zorigaitza ezagutu zenutela esan duzu.

Gerra uztailaren 18an hasi zen, mundu guztiak dakien bezala. Igandea zen. Ni kalean nengoen jolasean, etxe azpiko iturrian. Orduan, erreketeez betetako autobusa heldu zen. *Viva España! Viva España!*, zioten. Amak bazuen gertatzen ari zen berri eta balkoira irten zen. Fusilekin zeudenen ondoan ikusi nindueanean, asaldatu egin zen eta deitu egin zidan. Zarata zela eta, ez nuen entzun. Etxera heldu nintzenenean, gozoa zegoen nire ama... Kasurik ez niola egin uste zuen.

Zer gertatu zen ondoren?

Anaia zaharragoetako bat Bizkaian zegoen okupazioa hasi zenean. Beste batek, berriz, ihes egin zuen. Gauez, trenbidetik, Zumarragara etorri zen eta errepublikaren aldeko armadan sartu zen. Sozialisten egoitzaren gainean bizi ginen eta amak lagundu egiten zuen. Soldaduak bertan sartu ziren informazio bila eta gero, kalean, guztiari su eman zioten. Koltxoiak leihotetan jarrita lo egiten genuen, balengandik babesteko. Falangistak etxera etorri

ziren eta anaiek eurekin elkartzeko 48 ordu zituztela esan zioten amari. Halakorik egiten ez bazuten, guk ordainduko genuela. Amak bere semeez ez zekiela ezer erantzun zien. Amari ilea erabat moztu zioten eta herritik bidali gintuzten. Aita, ama eta bost seme-alaba gurasoen herrira joan ginen: Segoviara.

Denbora luzez egon al zineten Segovian?

Gerra bukatu zen arte. Gero Urretxura etorri ginen. Izan ere, beste bi anaiak ere

“Elizara zihoan emakume batek arreba txikiari errusiarra eta komunista deitu zion eta negarrez itzuli zen etxera”

hona etorri ziren. Urretxun ondo hartu gintuzten, baina Segovian oso gaizki ikusita geunden: espiak, gorriak, komunistak, errusiarrak... ginen. Elizara zihoan emakume batek arreba txikiari errusiarra eta komunista deitu zion behin eta negarrez itzuli zen etxera. Amak ez kezkatzeko esan zion, hori deitu izana ohorea zela.

Noiz utzi zenion eskolara joateari?

Segovian nengoela, 11 urterekin, utzi nion eskolara joateari. Izan ere, aitarekin laneira joan beharra nuen, sorora. Ahal genuen horretan lan egiten genuen. Udaberrian mahastiak kimatu egiten dira eta gero xirimenduak jaso. Hiruzpalau mutiko joan ginen hura egiteko asmoarekin, baina nagusiak noren semea nintzen galdetu

zidan. Erantzun nioenean, niretzat ez zegoela lanik esan zidan. Belar txarrak jasotzen ere ibiltzen ginen, pinuei adarrak kentzen eta pilatzen...

Urretxura etorri zinenean, zertan aritu zinen lanean?

Buscaren lantegian hasi nintzen, Eitzagako aldapan, zumea zuritzen. Azaroan etorri ginen eta 14 urte bete nituenean, otsailean, Orbegozon hasi nintzen. Bizpahiru urte eman nituen bertan. Gero Sarralden eta Aparizion aritu nintzen, besteak beste. Gehien ordaintzen ziguten tokira joaten ginen. 20 urterekin Badiola orrazi lantegian hasi nintzen eta bertan erretiratu nintzen, 59 urterekin, taupada-markagailua jarri zidatelako.

Merkataria ere izan zara.

Denda txiki bat ireki nuen Zumarragako Legazpi kalean, orain Munch lentzeria dagoen tokian, 31 urte nituenean. Baina lehenago Venezuelara joan nintzen, ezkonberritan eta alaba zaharrena jaioberrria zela, bakarrik. Ez genuen etxerik, ez zegoen etxebizitzarik topatzeko aukerarik eta aitagarrebekin bizi ginen. Venezuelan, ordea, ez zegoen lana aurkitzeko modurik. Zergatik joan nintzen Venezuelara? Amerikara joan nahi nuen, bidaia agentzian Venezuela aipatu zidaten eta besterik gabe... Urtebetera itzuli nintzen. Ez nuen fundamentuzko lanik aurkitu. Aberrirratuta bidaltzea lortu nuen eta hala ez nuen bidaia ordaindu beharrik izan. Baldintza bakarra jarri zidaten: ezin nintzen Espainiatik irten ordaindu gabeko bidaia hori ordaindu arte. Lezioa ikasi nuen... ordutik ez naiz hemendik irten. Itzuli eta berehala, Hilario Badiolak lana eskaini zidan lantegian.



Emaztearekin, Mallorcan, kamera lepotik zintzilik duela.

Lehengora itzuliz, Zumarragan denda ireki zenuen.

Liburuak saldu eta trukutzen genituen. Emazteak irekitzen zuen denda eta ni lan-tegitik irteten nintzenean joaten nintzen. Garai hartan, telebistarik ez zegoenez, nobela asko irakurtzen ziren. Gizonezkoak bakeroenak eta emakumezkoek maitasunezkoak irakurtzen zituzten. Bezero batzuk 10 nobela ekartzen zituzten trukatzeko eta 50 xentimo kobratzen genuen bakoitzeko. Argazkiak ere ateratzen nituen. Argazkigintza gustuko nuen eta Donostiara joan nintzen ikastera, Koch ospetsuarengana. Errebelatzen irakatsi zidan, baina Zumarragan ez zegoen lan egiterik. Izan ere, Berriotxoaren gure argindar hornitzailea eta gorabeherak izaten ziren. Beste hornitzailea Lizartza zen. Azken honek ez zuen gorabeherarik, baina gauez bakarrik ematen zuen argindarra. Nik, ordea, egunez ere behar nuen.

Hori guztia dela eta, argazkien kontua gaizki joan zen.

Zer argazki ateratzen zenituen?

Bi kamera nituen alokatzeko eta gero bezeroek ateratako argazkiak errebelatzen nituen. Herririk herri argazkiak ateratzen ere ibili nintzen, baina lotsa ematen zidan. Argiaren arazoa zela eta, dendan ez nuen argazkiak ateratzerik. Kontu hori utzi ondoren Iberduero etorri zen eta Berriotxoaren eta Lizartzaren bezeroak hartu zituen.

Gero, Urretxura joan zineten. Areizaga plazan Gama denda ireki zenuten.

Duela 40 bat urte izan zen hori, etxe hura egin zenean. Leihoak Alberdik egin zizkidan eta altzariak Bionak. Nobelak, opariak, eskolarako materiala... saltzen nituen. Bigarren alaba ezkondu zenean utzi nuen denda. Duela 20 bat urte. Geroztik errentan izan da.

Mariano Garcia, Areizaga-Kalebarren plazako obra erakusten.



Liburu dendako lana gustuko al duzu?

Bai, baina oso gogorra da. Izan ere, liburuak uzten duten mozkin-marjina txikia da. Zorionez, saltzen ez zena itzuli egin zitekeen.

Areizaga plaza merkataritzarako toki ona al zen?

Herri erdian zegoen, baina trenbidea eta murrua zirela eta, dendara heltzea zail samarra zen. Orain, berriz, toki pribilegiatua da. Gainera, han guraso asko ibiltzen da haurrekin. Jende asko etorri zaigu galdezka, baina alabek ez dute lokala saldu nahi.

Gaia aldatuz, argazkigintzaz gain, zinea ere asko atsegin duzu. Nolatan zaletasun hori?

Ba al dakizu nola zaletu nintzen? Gaztetan, filma bat ikusten ari nintzela, bikote ezkonberri bat atera zen kamera batekin. Nik ere, egunen batean, seme-alaben irudiak hartuko nituela pentsatu

nuela oroitzen dut. A zer nolako burutazioak nituen!

Noiz egin zenituen lehen grabazioak?

Venezuelatik etorri nintzenean, 32 bat urterekin. Italiar batek pelikula eman zidan, baina ez nuen kamerarik. Iruñean bizi den anaiak nik baino lotsa gutxiago du eta norbaiti kamera eta proiektorea eskatu zizkion niretzat. Lehen grabazioan emaztea eta alaba zaharrena ageri dira, Olaetxearen zelaian, Ipintza ondoan. Pelikulak ez du soinurik. Gordeta dut noski, urrearen pare. Pelikula zahar horiek bideo formatura pasatu nituen beranduago.

Zer lan grabatu dituzu urte hauetan guztietan?

Familiarentzat garrantzitsuak izan diren une guztiak: alaben jaiotzak, bataioak, jaunartzeak, emaztearen ahizpen ezkontzak, txangoak... Urretxu eta Zumarragako festak eta ekitaldiak ere grabatzen nituen. Neure kabuz joaten nintzen, inork eskatu gabe. Belokiko gurutzearen festakoek bakarrik deitzen zidaten gogorazteko.

Ordu asko ematen al zenituen kamerarekin?

Denbora nuen guztietan hartzen nuen kamera. Lanik handiena eta garrantzitsuena erreka estali zutenekoa da. Nire ustez, obra hori Egiptoko Asuan presakoaren pare da: bata herri mailan eta bestea nazio mailan. Oso garrantzitsua izan zen Urretxu eta Zumarragarentzat. Lanek bi urte iraun zuten eta egunero hartu nituen irudiak. Etxeko balkoian markak egin nituen tripodea beti toki berean jartzeko. Ikusgarria da habeak nola jarri zituzten.

Obra horri horrenbesteko garrantzia ematea ez da harrizkekoa. Izan ere,

Beheko ilaran, ezkerretik lehena, kintoekin.



denda inguru hartan duzu eta behin baino gehiagotan jasango zenituen uholdeak.

Hirutan sartu zen ura dendara, baina lehenengo aldiak bakarrik harrapatu gintuen gu bertan: lehen hauteskunde bezperan izan zen. Ondorengo uholdeetan errentan utzita genuen.

Zenbat kamera izan dituzu?

Bi zine-kamera eta bideokamera bat. Lehenengoa zortzi milimetrokoa zen eta bigarrena Super 8 delakoa. Lehenengoa frantsesa da, 50eko hamarkadakoa eta nahiko txarra. Bigarrena Afrikatik ekarri zidan bertan soldadutza egiten ari zen mutil batek. Ezkonberritan erosi nuen argazki kamera ere gordeta dut oraindik. Tolosan erosi nuen eta bizikletan joan nintzen. Beldur ederra pasatu nuen! Izan ere, errebelatzeko erretiluak ere erosi nituen eta nahiko lan nuen oreka mantentzeko.

Grabatzen jarraitzen al duzu?

Bideokamerarekin bakarrik. Azken graba-

zioa Areizaga-Kalebarren plazaren berri-tzea izan da. Dena den, nahiko utzita dut. Ez dut gaztetako ilusioa. Bideoa heldu zenean, zinea utzi egin nuen. Izan ere, zine kamerak askoz ere garestiagoak dira. Sekuentzia motzak egin behar dira. No-do delakoa ikusten ikasi nuen. Bideokamerak, berriz, orduak eta orduak grabatzeko aukera ematen du.

Grabaketa kontua nahiko utzita baduzu, zertan ematen duzu eguna?

Goiz jaikitzen naiz eta Ferminen tabernara joaten naiz: botilak jasotzen dizkiot, konponketaren bat egin... ez diot deus kobratzen, denbora pasatzeko egiten dut. Arratsaldeetan, berriz, minidisc-a hartu eta bidegorrira joaten naiz. Iazko udan Azkoitiara autobusean joan eta oinez itzultzen nintzen, ia egunero. Aurten ere joan nahi dut, proba egiteko behintzat. Bestalde, bonsaiak ere baditut: Agerre baserriko gereziandoa, pinuak, lizarra, algarroboa, mizpirondoa, laranjondoa... Nire kabuz ikasi nuen.

Marina Aparicio: Aspaldiko partez, herrian lanean

Marina Aparicio aktore zumarragarrik bere jaioterrian antzeztuko du ostiralean. Beldurrei buruzko 'Las inalambri-cas' haurrentzako antzezlan eskainiko dute, 17.30ean, Zelai-Ariztin. Apariciok Iruñean ikasi zuen, egun Bilbon bizi da eta poliki-poliki antzerki munduan bidea egiten ari da.



Nolatan aktore?

Urte asko pasatu dira dagoeneko herriko antzerki tailerrean hasi nintzenetik, Juanlu Escuderoekin-eta. Gustuko nuenez, Iruñako antzerki eskolara joan nintzen. Duela lauzpabost urte bukatu nuen eta ordutik antzerkian lanean aritu naiz.

Zergatik erabaki zenuen Iruñara joatea eta ez beste nonbaitera?

Euskal Herrian antzerkia ikasteko zein aukera zeuden begiratzen aritu nintzen. Donostiako eskola batean urtebete eman nuen, baina gero Iruñara joan nintzen. Izan ere, ordutegia zabalagoa zen eta ikasketak osoagoak izango zirela pentsatu nuen. Oraindik ikastaroak egiten ditut. Gainontzeko lanetan bezala, birziklatu beharra dago.

Zein lanetan parte hartu duzu?

Lehenengoa Donostiako Hika taldearekin izan zen. Bariccoren nobela batean oinarritutako *Zeta* lana antzeztu genuen. Ondoren, En construccion taldea sortu genuen Iruñean eta *Hi ergela haiz, edo zer?* antzezlanaren eszenaratu genuen. Orain Vaiven taldearen *Las inalambricas* lanarekin nabil.

Telebista eta zinerako lan egin al duzu?

lazko udan kapitulu batzuk grabatu nituen *Balbemendi* telesailerako. Zinean ez dut lanik egin, baina laburmetraia batzuetan parte hartu dut. Egia esan, ikus-entzunezkoen munduan ez dut lan gehiegirik egin.

Erraza al da Euskal Herriko antzezte gazteentzat aurrera egitea?

Nik nahiko zorte ona izan dut. Ikasketak bukatu eta lanean aritu naiz. Dena den, aktore lanetik bizitzeko zailtasunak ikusten ditut. Ni, adibidez, antzerki klaseak ematen ere ibili naiz. Nire esperientzia nahiko ona da, hala ere.

Ipuin kontaketa ere aritzen zara.

Sarritan aritzen naiz horretan, esparru horretan lan egiteko aukera ona baitago. Bakarrik ibiltzen naiz, askotan liburutegetan. Oso lan polita da, biluzik joaten baikara: ipuina eta aktorea. Ohiko antzerkia eta ipuin kontaketa oso jarduera ezberdinak dira.

Nondik nora ibiltzen zara?

Nafarroan hasi nintzen eta dagoeneko Bilbon ere aritu naiz. Baita Gasteizen ere. Gipuzkoan oso gutxitan izan naiz. Nik neuk aukeratzen ditut ipuinak. Batzuetan gai zehatz bat lantzeko eskatzen didate eta ekitaldia zein adinetako haurrei zuzenduta dagoen ere kontuan

“Ipuin kontaketa polita

da, biluzik joaten baikara:

ipuina eta aktorea. Ohiko

antzerkiaren oso

ezberdina da”

izan behar da. Ipuinak besterik ez dut irakurtzen orain!

Iruñara joan zinen, baina orain Bilbon bizi zara. Nolatan?

Bilboko antzerki talde bat ezagutu nuen, FTI Antzerkiola Imaginarioaren ikastaro bat egiten ari nintzela, eta beraiekin aritzea eskaini zidaten. Gustura ibili nintzen eta Bilbora joatea erabaki nuen, beraiekin jarraitu ahal izateko. Denbora gutxi daromat bertan, baina gustura nago. Gainera, Nafarroan baino aukera gehiago dago antzerkian aritzeko.

Zer esan dezakezu *Las inalambricas* antzezlanaz?

Aurrestreinaldia Urrietako Sarobe kultur etxean izan zen, hilaren 10ean. Entseguak ere bertan egin genituen. Orain, berriz, nire herrian antzeztuko dugu. Komedia musikala da, adin guztiko-entzat aproposa. Protagonistak musika talde bat duten hiru neska dira eta antzezlanaren euren lehen kontzertuaren ingurukoa da. Norberaren beldurrei buruz mintzaten gara. Neska hauek euren beldurra besteei horren berri emanez gaintitzen dute. Funtzioko une batean, haurrei euren beldurrei buruz galdetzen diegu.

Musikala dela esan duzu. Ondo mol-datzen al zara kantuan?

Antzezlanean parte hartzen dugun nesketako bi aktoreak gara eta hirugarrena abeslaria da. Kantuan ere oso gustura gabiltza.

Aspaldiko partez jaioterrian lan egin behar duzu. Urduri al zaude?

Denbora asko pasatu da azkenekoz herrian antzeztu nuenetik. Baita azkenekoz herrira joan nintzenetik ere! Zumarragara joateak asko pozten nau. Kontuan izan behar da, gainera, festak direla. Kanpoko antzerki talde batekin noan lehen aldia da eta ipuinak kontatzen ere ez naiz sekula izan. Ezagunek funtzioa ikustera joateko asmoa dutela esan didate. Urduri jarriko naiz ziur aski, baina urduritasun positiboa izango da.

Bukatzeke, zer gehiagotan ari zara?

Lehen aipatu dudan Bilboko taldearekin, Zero Teatroa izenekoa, *Metafora* lana antzezten ari naiz. Kale antzerkia da eta gustura gara izan duen erantzunarekin. Gainera, urtea amaitu aurretik beste antzezlan bat aurkezteko asmoa dugu.

Aurpegi berria, Real berrian

Realak berri on gutxi eman ditu bukatu berri den denboraldian, baina horietako batek herriko zaletuak poztu ditu: Mikel Balenziaga zumarragarrik bigarren taldera salto egin du eta nagusiekin entrenatzen ere izan da. 19 urte ditu, ezkerreko hegaleko postuan jokatzen du eta lehen taldera heltzeko benetako ahalegina egiteko ordua heldu dela dio.

Mikel Balenziaga, Zintzo-Mintzo elkartearen egoitzaren kanpoaldean.



Zer nolako jokalaria zara?

Ezkertia naiz eta atzelari jokatzen dut, baina beti erasokorra izan naiz. Ez zait batere gustatzen atzean gelditzea. Hori dela eta, batzuetan errietaren bat entzutea tokatzen zait. Izan ere, nire lehenengo lana defenditzea da.

Zer ibilbide osatu duzu orain arte?

Urolaren txapelketa jokatu nuen eta euren futbol eskolarako hartu ninduten. Urtebete ondoren, federazioak deitu zidan eta gero Realak. Urte erdi eman nuen eurekin entrenatzen; txapelketa batzuk jokatu nituen, tartean Canal + katearena; baina ez zidaten liga jokatzeke deitu. Hori dela eta, Urolara itzuli nintzen. Handik bi urtera, 2001ean-edo, berriro deitu zidaten. Xabier Jorge eta biok joan ginen hemendik.

Zubieta ondo ezagutzen duzu, beraz.

Bai, bai. Zubietako guztiak ezagutzen ditut eta familia giroa dugu bertan. Oso giro ona dugu. Noizean behin tentsio unerren bat egotea normala da, baina oso gustura nago. Gainera, aurre denboraldia jubentekin hasi dut, baina urtarrila geroztik Sanserekin ari naiz. Oso ondo

hartu ninduten. Dena oso polita izan da, baina oso azkar joan da eta asimilatzeke zaila da. Dena den, ondo eraman dudala uste dut. Gustura egoteko moduko urtea izan da niretzat.

Gainera, lehen taldekoekin entrenatzeko aukera izan duzu. Zer sentitu zenuen berria eman zizutenean?

Asteazken goiz bat zen. Sanserekin entrenamendua nuen, baina hasi baino lehenago entrenatzaileak lehen taldearekin aritu behar nintzela esan zidan. Partida bat jokatu behar zuten eta Garrido min hartuta zegoen. Bigarren zatian sartu nintzen eta ezkerreko erdilari postuan jokatu nuen. Geroztik hamar bat aldiz entrenatu dut beraiekin. Elustondo, adibidez, lehen taldearen aldagelara pasatu dute jada; baina ni bigarren taldeari dagokionean aldatzen naiz.

Zer moduz moldatu zara lehen taldeko jokalariekin?

Ondo, giro ona baitago. Oraindik ez dut hartu nautenik esaterik, baina ondo moldatu naiz. Euren arteko giroa esaten den bezain ona da. Nahiko gaizki ibili dira, baina entrenamenduetan giro ona ikusi dut. Lotina ere nahiko jatorra da: lana egin behar denean serio egoten da eta bromak egin behar direnean bromak egiten ditu.

Euskaraz hitz egiten al duzue?

Ansotegi, Aranburu eta horiekin euskaraz egiteko aukera dut eta baita egin ere. Etxekoon artean euskaraz egiten dugu.

19 urtetik azpikoekin Espainiako selekzioarekin ere hasi zara.

Euskadikoarekin hiru urte daramatzat eta Espainiakoarekin aurten hasi naiz. Bi partida ofizial jokatu ditut eurekin. Guztira bost. Realako giroa eta Espainiako selek-

ziokoa oso ezberdinak dira, baina han ere moldatu egin behar eta gustura naiz. Giroa hotzagoa da, jende oso ezberdina baitago eta gutxitan elkartzen baikara.

Bi partida ofizial jokatu dituzu.

Europako txapelketarako sailkatzeke balio izan dute. Gure taldean Azerbaijan, Norvegia, Islandia eta gu geunden eta sailkatu egin gara. Txapelketa udan jokatuko da. (Balenziaga hautatua izan da).

Horren denbora laburrean halako saltoa ematea espero al zenuen?

Denboraldia jubenilekin hasi nuen eta nire asmoa jokatzea zen. Dena ematea

“Nahiago dut lehen taldeko batzuek Realatutziko duten ez pentsatu. Etorri behar dena, etorriko da”

eta urte on bat osatzea. Sanse azaroan hasi zen jubenil taldeko jendea entrenamenduetarako hartzen. Halako batean, eurekin partida jokatzea tokatu zitzaidan. Egia esan, ondo jokatu nuen.

Zelaian hizketan bezain lasaia al zara?

Ez naiz urduri jartzen den horietakoa, baina lasaia ere ez. Urolan eta Realeko lehen urteetan urduriago jartzen nintzen. Dudana eman eta kito.

Ikastolako aldizkarian futbola serio hartzeko garaia heldu dela esan duzu.

laztik hona nire pentsaera aldatu egin da. Dagoeneko hirugarren urtea nuen jubenil mailan eta taldean erantzukizunak hartzeko garaia zela pentsatu nuen.

Zaharrenetakoa nintzenez, zelaian agindu eta beste rol batzuk hartu behar nituen. Sansera pasatu nintzenez, berriz, ahalik eta gehien saiatu behar nintzela argi ikusi nuen. Ea zer gertatzen den!

Zenbat urterako kontratua duzu?

Beste bi urterako kontratua dut eta Sansen segituko dudala esan didate.

Nola ikusten duzu etorkizuna?


Lehen taldera salto egiten eta futboletik bizitzen saiatu beharra dut. Sansen dena ematen saiatuko naiz. Hurrengo denboraldia oraingoa bezain ona izatea zaila izango da. Nire helburua Realarekin Lehen Mailan jokatzea da. Etorkizuna etxean ikusten dut. Kontratua amaitu ondoren jarraitzeko aukerarik izango ez banu, beste zer edo zer bilatu beharko nuke.

Harrobiko gazteek lehen taldera salto egiteko orain arte baino aukera gehiago izango dituzuela uste al duzu?

Lehen Mailatik Bigarren Mailara jaisteari ez diot ezer onik ikusten. Harrobiarentzat Bigarren Mailara jaistea hobea ote den? Nik nahiago nuke taldea Lehen Mailan egotea. Nahiago dut lehen taldeko batzuek Realatutziko duten ez pentsatu. Etorri behar dena, etorriko da. Eguneroko lana egin eta kito.

Futbola serio hartzeko garaia dela esan duzu, baina ikasketak ez dituzu albo batera utzi nahi.

Enpresaritzan ikasten ari naiz. Urtea ez da nahi bezain ondo joan, baina ulertzekoa da. Abuztuan ikasi egin beharko dut... Behin Sansen, futbolarik lehentasuna du. Momentu hau, aukera hau, aprobetxatu beharra dut. Ikasketak aurrera aterako ditut, sei urtetan ez bada zazpitan.



Alex Areizaga

Informatika

Wikipedia entziklopedia askea

Wikipedia sarean dagoen entziklopedia askea da. Eduki askekoa da, hau da, nahi duenak kontsultatu eta erabili dezake, eta baita hitz edo definizio berriak gehitu ere. <http://eu.wikipedia.org/wiki/Azala> helbidean aurki dezakegu euskarazko bertsioa, 18.152 artikulurekin. Ez da gainera, entziklopedia hutsa: eztabaida tokiaren gisako atal gehiagoz osatua baitago. Wikipedia erabiltzeko, nahikoa da *bilatu* jartzen duen lekuan guk aurkitu nahi dugun hitza edo izena jartzea, eta zuzenean bilaketaren emaitza guztiak agertuko zaizkigu. Wikipedia, software askea ordainpekoaren mailara iristeko eta hau gainditzeko gai denaren erakusle argia da. Baina hori bai, guztion parte hartzea behar da horretarako.



Izaro Soraluze

Osasuna

Farmakoak eta eguzkia

Farmakoren bat hartzen ari bagara, arreta izan behar dugu eguzkiarekin, askok fotosentsibilitate erreakzioak eragiten baitituzte. Bi motatako erreakzioak eman daitezke, fototoxikoak eta fotoalergikoak hain zuzen ere. Fototoxia erreakzioek, eguzkiaren erredura gogor baten antza duten zauriak sortzen dituzte. Eguzki izpiekin kontaktuan dauden azaleko zatietan soilik ematen dira. Fotoalergia, berriz, sustantzia fotosensibilizatzaile eta eguzki izpien arteko konbinazioak erreakzio alergiko bat eragitean ematen da. Agerian dauden guneeetan nahiz agerian ez daudenetan. Normalean azalean emandako medikamentuekin gertatzen da. Erreakzio hauek, eritema, erupzio ekzematosoak, azkura eta edema eragiten dituzte. Esposizioaren ondorengo 12-72 ordutan ematen dira. Erreakzioak eragiten dituztenak ugari dira. Aho bidezko antisorgailuak, hipertentsioaren aurkakoak, aknea eta psoriasiaren aurkakoak, antidepresiboak, antibiotiko batzuk... Eguzkitan jarri aurretik prospektuak irakurtzea komeni da eta baita, medikamentu hauetakoren bat hartzen ari bagara, pantaila totaleko kremak erabiltzea ere.

Dei galduak

"Txinatar guztiek batera salto eginagatik, ez lukete lurrikararik sortuko". Aldizkarietan tankerako esaldiak bilatu zalea zen. Trenz bidaiatzeak bi plazer eskaintzen zizkion, beraz: geltokietako kioskoetan tankera horretako aldizkariak bilatzekoa eta joan etorrietan horrelako esaldiak irudikatzekoa. Orduko hartan, adibidez, irudimenari esker treneko bidaiari guztiei begiak itxi eta luzatu zizkien. Ondoren, hiru kontatutakoan, jaiki eta saltoka hasteko agindua eman zien.

Azken aurreko bagoitik zetoze, trenaren kontrako norabidean, seguritateko mutilak azken bagoian sartu ziren arte. Aldizkarien irakurleak autoritate pixka bat egozten zien oraindik. Horregatik, bada ezpada, bi gizon puska horiek zerbait esan aurretik, irudimenari esker berriz ere, bere bagoiko txinatar guztiei begiak estutu eta ireki zizkien, eta gelditu eta aulkietan esertzeko ordena eman.

Parera zetozkion seguritateko mutilen artean, lehenengo zihoanak bide bera askotan egin duenaren ziurtasuna zerman. Bigarrenari, ordea, ziurtasun itxura eman nahia nabaritzen zitzaion. Begiradak salatzen zuen: berria zen. Trajea bera ere grisegia eta horiegia zen; garbitu gutxi zituela, alegia. Eskerrak esperientziadun lankideak adiskidetasun kolpe bat eman zion bizkarrean. Eta bide batez, bizkarra zuzendu eta birrikak eta bularra puzteko agindua eman zion.

-Azkenean! Hemen da astegunero trenera igotzeko begiak ematen dizkiodan neska. Ile beltz-beltza duen hori da. Gaurkoan ni noa beregana. Ezin naiz urduritu. Ez nago urduri. - bere betiko habitatetik kanpo ederrago dagoela iruditu zaio, oraindik bizkarrez soilik ikusi badezake ere.


-Ile luze kizkurdun horren ondokoa?

-Bai, hirurogei urte inguruko emakumearen parekoa.

-Haserre dagoela dirudien mutil ilehori horren pareko neskatila ile kizkurdun politaren albokoa? - datu garrantzitsuak eman zituen, hitz egiten ari ziren neskaren alboan dagoen neska harten du erreferentziatzat, badaki hau polita dela eta pareko mutila haserre dagoela indartu nahi du.

-Bagoiko neska politena dela esatea nahikoa zen, gizona!

-Bietan zein, baina? Ile belzduna ala ile kizkurduna?



Cuestako poltsa duen begirada arduratuko emakumearen eta haserretutako mutil ilehoriaren parean daudenei buruz ari gara biok, ezta? - seguritateko mutil izateak lanorduetan tankerako jolasekin dibertitzeko aukera eskaintzen du.

-Bietan politena, emakumearen parekoa da, ile beltz-beltza duena, ez du politagorik, ikusiko duzu parean pasatzean.

-Nik ile kizkurdun neskatilarekin konformatu beharko dut, beraz. Horrek ere polita izan behar du. Parean duen haserretutako begirada duen mutilak itsustuko ez balu... - haserre ikusten zuen berak ere amorriz begiratzen ziolako.

-Adorez josiko naiz, eta gaurkoan bai, geltokian etorriko zen edo etorriko ez zen dudatan nengoenean, hurbiltzeko aukerarik ez nuela galduko egin dut promes.

-Haserre dagoen mutilaren begirada ezaguna egiten zait...

-Mutil laguna izango du eta, gu bezalako bi gizonekin bere neska galtzeko arriskua ikusi du! - erdi bromatan esan du, baina lankide berriak benetan hala pentsatzen ote duen...

-Zuk uste? Maitemindu begiak ikusten dizkiozu mutil horri? Ez dute gureekin konparaziorik! - ile kizkurdun neskaz maiteminduta dagoela iradoki nahi zion lankideari. Honek, berriz, ez dio gaien sakontzeko betarik eman.

-Zuk niri segi. Gaur izango da eguna. Ezin naiz urduritu, ez nago urduri, ez zait urduri nagoenik nabaritutako... Bizkarra zuzen eta burua tente. Tranpalean geratuko gara, ados?

Amaia Artolazabal

www.otamotz.com web orrian ipuina osorik irakur dezakezue, *Aldizkaria* saileko *Ipuinak* atalean.

Anjeli Urtaran

Anjeli Urtaran zumarragar peto-petoa da. Aita Gatzagakoa zuen eta ama Urzabaleta baserrikoa. Mojatan ikasi zuen, 14 urte bete zituen arte. Beranduago, Carlos Nuñezen drogerian hasi zen lanean. "Farmaziakoak lagunak nituen, sarritan etortzen nintzen beraiengana eta eurekin aritzea eskaini zidaten". Beranduago, farmazia eta drogeria banatu ziren eta, duela 20 urte pasatxo, Urtaranek denda hartu zuen. "Negozioa nirea denez, aurrera egiten dut, baina garai batean herrietan gehiago saltzen zen", dio. 2009 urte hasieran erretiroa hartuko du.

Zer izan nahi zenuen umetan?

Ezer ez bereziki.

Aisialdian zer egitea atsegin duzu?

Ibiltzea gustatzen zait gehien. Antiora eta Belokira joan zalea naiz.

Bizitzeko toki bat?

Zumarraga ez nuke Donostiagatik ere aldatuko. Herrietako bizitza kalitatea hirietakoa baino hobea da. Denok elkar ezagutzen dugu eta elkarrekin hitz egiten dugu.

Zein perfume atsegin duzu?

Perfumeez nekatuta nago jada... Usain garbia eta freskoa dutenak atsegin ditut. Astunak, ordea, ez ditut atsegin.

Jasan ezin duzun usainen bat?

Ez dago bereziki nazka ematen didan usainik.

Usaimena garatuta ala gogaituta al duzu?

Lan honetan zentzumen hori garatu egiten dela uste dut.

Gizonezkoek lehen baino gehiago zaintzen al dute itxura?

Eurentzat zenbat produktu atera diren ikustea besterik ez dago. Gazteak inongo erreparorik gabe etortzen dira dendara.

Zumarragar peto-petoa zara. Nola bizi dituzu festak?

Santa Isabel egunean ezin da kale egin: meza, pintxoa eta jendearekin hitz egin. Bestalde, plazan bizi naizenez, txaranga eta orkestra guztiak entzuten ditut. Gu ere gazteak izan ginen...

Ilehoriak ala beltzaranak?

Dagoeneko... Beltzaranen edertasuna gehiago gustatu izan zait beti, bai gizonezkoetan eta baita emakumezkoetan ere.

Egindako azken oparia?

Opariak egin zalea naiz. Ez dut oroitzen noiz egin nuen azkenekoz



arrazoi berezi batengatik. Iloben urtebetetze egunetan izango zen.

Eta jasotakoa?

Nire urtebetetze egunean jasoko nuen azkenekoa.

Data bat?

Errege Eguna eta ingurukoak. Izan ere, urtarrilaren 7an jaiotakoa naiz eta familiako beste zenbaitzuk ere egun horren inguruan betetzen dituzte urteak.

Neska eta mutil izen bana?

Ilobenak: Josu eta Maialen.

Zein egunkari irakurtzen duzu?

DV erosten dut eta ahizparenean Noticias irakurtzen dut.

Gustuko telebista saioa?

La noche tematica, *Callejeros* eta filmak atsegin ditut gehien.

Bereziki gorroto duzuna?

Salsa Rosa eta antzekoek gaixo jartzen naute.

Liburu bat?

Toti Martinez de Lezearen bat irakurtzen ari naiz.

Abesti bat?

Benito Lertxundi asko gustatzen zait.

Soinu bat?

Pianoarena.

Usain bat?

Belar moztuarena oso atsegina da.

Janari bat?

Denetarik duten entsaladak.

Ura ala...

Ardo ona. Egunero hartzen dut bat, lanetik irten ondoren.



Construcciones **MENDIOLA**

Labeaga, 9- Tf. 943 72 05 11 - Fax: 943 72 44 10
20700 URRETXU (Gipuzkoa)
E-mail: mendiola@cmendiola.com
www.cmendiola.com



Etxebizitzen
eraikuntza

Industria
pabilioiak

Urbanizazio
lanak

**Legazpiko Olazabal Institutuaren
ondoan 6 chalet adosaturen
eraikuntza berria**

**ENTZUMEN ZUZENKETAN LEHENENGO ERAKUNDEA,
ORAIN, ZUGANDIK GERTUAGO**

UROLA GARAIARAKO ZENTRO BERRIA

